

Izena: Ikusteko ezintasuna duten Pertsonen Arabako Elkartea.		
Posta-helbidea: Bastida plaza 29, behea. 01015 Vitoria-Gasteiz. Zabalgana auzoa	Telefono-zenbakiak: 945289342	
Logoa: 	Helbide elektronikoa: info@itxaropena.es	QR kodea:  
	Webgunea: https://itxaropena.es/	
Nortzuk dira: 1981ean sortu zen Itxaropena, irabazi-asmorik gabeko erakundea da, utilitate publikokoa eta gizarte-intereseko izendatua, eta Arabako ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen inklusioa sustatzea du helburu, honako esparru hauetan: familia, gizartea, eskola eta lana, horretarako beharrezko diren zerbitzu eta jarduerak eskainiz eta kudeatuz.		
Zein talderi zuzentzen zaizkion: Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak eta senideak, eta haien gizarte-, familia-, eskola- eta lan-eremua.		
Zerbitzuak eta Programak: • Bazkideentzako eta senideentzako gizarte- eta laguntza psikologikoa, banaka zein familia-mailan. • Ikusmen-birgaitzea eta laguntza tekniko eta optikoei buruzko aholkularitza. • Teknologia berrietan orientazioa (irakurketa-idazketarako, makillajerako, ...). • Enpleguari buruzko orientazioa eta laguntza. • Aholkularitza juridiko integrala. • Boluntariotzaren bidezko laguntza-zerbitzua. • Bazkideen parte-hartze aktiboa sustatzeko aisialdi eta kultura jarduera eta proiektu ugari, haien autonomia pertsonala eta ongizatea bultzatuz • Ikusmen-desgaitasunari buruzko sentsibilizazio-ekintzak, gizarte-pertzepzioa aldatzeko, aurreiritziak ezabatzeko eta ingurune inklusibo eta irisgarria sortzeko.		
Beste datu interesgarri batzuk: • “Ponte en mis ojos” proiektua, familiak eta profesionalak sentsibilizatzeko. • Ikusmen urriko makila berdea bultzatzeko proiektua. • Araban ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako lehen horma-irudi irisgarria sortzea. • “LIO, La Ilusión Óptica” podcast proiektua. https://www.youtube.com/@LAILUSIONOPTICA/videos • Araban Goalball kirola bultzatzen duten sustatzaileak. • Mezenasgo-jarduera lehentasuntzat aitortutako erakundea. • Eusko Jaurlaritzaren Ikusmen-desgaitasuna duen ikasleentzako Inklusiorako Baliabide Zentroak (CRI) sortzen aitzindaria.		